

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3788

1296/2026 EBAZPENA, uztailaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentea izendatzen baita.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 8ko 1033/2026 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen lanpostua betetzeko deialdia egin zen (2026ko ekainaren 18ko EHAA, 114. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, izangaiak lanpostua betetzeko aurkeztu duen dokumentazioa aztertu da, eta haren baldintza profesionalak aurkeztutako merezimenduen araberako baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Héctor Hernando Bocos jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— Héctor Hernando Bocos jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerente izendatzea.

Bigarrena.— Izendapen honek 2026ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 10a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.